

2. BAZTERKETA ARRAZOI BEHIN BETIKOAK. OROKORRAK.

2.1. Akats fisikoak izatea, jaiotzetik edo geroztik, edozein motatakoa eta tokitakoa, funtzio publikoa eta lortu asmo den postuko eginkizunak egitea murrizteko edo zailtzeko modukoa, edota eginkizun horiek egitekoan gaiztotzeko modukoa.

2.2. Gaixotasun larri edo kronikoren bat izatea, edozein gorputz aparatua edo sistematan, lortu asmo den postuko eginkizunak egiteari eragiteko modukoa edo eginkizun horiek egitekoan gaiztotzeko modukoa.

3. BAZTERKETA ARRAZOI BEHIN BETIKOAK. ESPEZIFIKOAK.

3.1. Begia eta ikusmena.

3.1.1. Urrutiko bat-bateko ikusmen zorrotasuna 2/3 baino txikiagoa izatea bi begietan Weckerren eskalaren arabera, zuzenketarekin edo gabe. Proba hori egiteko betaurrekoak edo lentillak erabil daitezke.

3.1.2. Hemianopsiak.

3.1.3. Diskromatopsiak.

3.1.4. Erretina askatzea.

3.1.5. Estrabismoa.

3.2. Belarria eta entzumena.

Entzumen zorrotasunaren galera: 1.000-3.000 Hz bitartekoa 35 dezibeliotan, eta 4.000 Hz 45 dezibeliotan.

3.3. Arteria hipertentsioa, edozein dela ere izateko arrazoia.

Arteria presioa pertsona atsedenean eta eserita dela hartuko da, eta maila hauez behetik izan behar da:

- Presio sistolikoa: 145 mm./Hg.

- Presio diastolikoa: 90 mm./Hg.

Datu kliniko horiek hartarako izendatuko mediku zentroak eta mediku epaimahaiak begiratu dituzte, ez bestek, eta, betiere, azterketa egiteko uneko emaitzak izango dituzte kontuan.

ERANSKINA II HARRERAGILE LAGUNTAILEA

1. Deitutako plazak.

Harreragile laguntzaile hiru (3) plaza betetzeko deialdia egiten da. Plaza horiek C taldekoak, C2 azpitaldekoak, administrazio bereziko eskalakoak, zerbitzu berezietako azpieskalakoak eta eginkizun bereziko klasekoak dira.

2. Betekizun espezifikokoak.

Izangaiek betekizun espezifikoko hauek bete behar dituzte:

2. EXCLUSIONES DEFINITIVAS DE CARÁCTER GENERAL.

2.1 Defectos físicos congénitos o adquiridos, de cualquier tipo y localización, que menoscabe o dificulte la función pública y las realizaciones específicas del puesto a que opta, o que puedan agravarse con el desempeño del mismo.

2.2. Enfermedades agudas o crónicas de cualquier aparato o sistema con posible repercusión sobre las realizaciones específicas del puesto a que opta, o que puedan agravarse con el desempeño del mismo.

3. EXCLUSIONES DEFINITIVAS DE CARÁCTER ESPECÍFICO.

3.1 Ojo y visión.

3.1.1. Agudeza visual espontánea remota inferior a 2/3 en ambos ojos con o sin corrección, según la escala de Wecker. Para la realización de esta prueba, los aspirantes podrán utilizar gafas o lentillas.

3.1.2. Hemianopsias.

3.1.3. Discromatopsias.

3.1.4. Desprendimiento de retina.

3.1.5. Estrabismo.

3.2 Oído y audición.

Agudeza auditiva que suponga una pérdida entre 1.000 y 3.000 hertzios a 35 decibelios, o de 4.000 hertzios a 45 decibelios.

3.3. Hipertensión arterial, prescindiendo de su causa.

Las cifras de presión arterial, tomadas con el sujeto en reposo y sentado, no deberán ser superiores a:

- Presión sistólica: 145 mm./Hg.

- Presión diastólica: 90 mm./Hg.

La comprobación de los datos clínicos a que hace referencia este cuadro se hará sólo y exclusivamente en el centro médico y por el Tribunal Médico designado al efecto, y sus resultados siempre han de referirse al momento de la exploración.

ANEXO II AUXILIAR DE RECEPCIÓN

1. Plazas convocadas.

Se convocan tres (3) plazas de auxiliar de recepción, perteneciente al grupo C, subgrupo C2, escala de administración especial, subescala servicios especiales, cometidos especiales.

2. Requisitos específicos.

Las personas aspirantes deberán reunir los siguientes requisitos específicos:

2.1 Titulazioa.

Deialdiko plaza bakoitzerako plazen taulan adierazitako titulu akademikoa edo baliokidetzat jotako titulua izatea, edo hura lortzeko moduan izatea eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunerako.

2.2 Euskara.

2. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzea (Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko B2 maila); izan ere, deitutako plazak 2. hizkuntza-eskakizuna (Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko B2 maila) duen eta derrigortasun-data igarota duen lanpostu bati lotuta daude.

2.3 Ingelesa.

Izangaiek ingeleseko B1 maila izan behar dute, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren arabera.

3. Lehiaketako merezimenduen balorazioa.

Gehienez ere 100 puntu lortu ahal izango dira, honela banatuta:

- Lan-esperientzia: gehienez, 80 puntu.

- Prestakuntza, hautaketa-prozesuak gainditzea, lan-poltsetan egotea eta gidabaimenak: 20 puntu, gehienez.

A) ESPERIENTZIA PROFESIONALA.

Lanbide-esperientziagatik gehienez 80 puntu lortu ahal izango dira.

a) Donostiako Udalean eta haren erakunde autonomoetan egindako zerbitzuak, harreragile laguntzaile plazari dagozkion lanpostuetan emandako zerbitzuak (C taldea, C2 azpitaldea): gehienez 80 puntu, hileko 0,90 puntu.

b) Donostiako Udalean eta haren erakunde autonomoetan egindako zerbitzuak, deialdiko plazetan ez den beste batzuetan: gehienez 20 puntu, 0,27 puntu hilabeteko.

c) Donostiako Udala eta haren erakunde autonomoak ez diren beste udal administrazioetan egindako zerbitzuak, deialdiko plaza bezalako edo haren balio bereko besteren batean (C taldea, C2 azpitaldea): gehienez 60 puntu, 0,60 puntu hilabeteko.

d) Beste administrazio publiko batzuetan egindako zerbitzuak, deialdiko plaza bezalako edo haren balio berekoren batean (C taldea, C2 azpitaldea): gehienez 60 puntu, hilabete bakoitzeko 0,30 puntu.

2.1 Titulación.

Estar en posesión del título académico o título declarado equivalente señalado en el cuadro de plazas para cada una de las plazas objeto de la convocatoria, o en condiciones de obtenerlo en la fecha en que termine el plazo de presentación de solicitudes.

2.2 Euskera.

Acreditar el perfil lingüístico 2 (nivel B2 del Marco Común Europeo de Referencia para las Lenguas), ya que las plazas convocadas están asociada a un puesto de trabajo con perfil lingüístico 2 (nivel B2 del Marco Común Europeo de Referencia para las Lenguas), con fecha de preceptividad vencida.

2.3 Inglés.

Los aspirantes deben poseer el nivel B1 de inglés según el Marco Común Europeo de Referencia para las Lenguas.

3. Valoración de los méritos del concurso.

Se podrá obtener una puntuación máxima de 100 puntos, con la siguiente distribución:

- Experiencia profesional: máximo de 80 puntos.

- Formación, superación de procesos selectivos, pertenencia a bolsas de trabajo y permisos de conducir: máximo de 20 puntos.

A) EXPERIENCIA PROFESIONAL.

Por la experiencia profesional se podrá obtener una puntuación máxima de 80 puntos.

a) Servicios prestados en el Ayuntamiento de San Sebastián y sus organismos autónomos en puestos de trabajo correspondientes a la plaza auxiliar de recepción (grupo C, subgrupo C2): máximo de 80 puntos a razón de 0,90 puntos por mes.

b) Servicios prestados en el Ayuntamiento de San Sebastián y sus organismos autónomos en plazas diferentes de la convocada: máximo de 20 puntos a razón de 0,27 puntos por mes.

c) Servicios prestados en una administración municipal diferente al Ayuntamiento de San Sebastián y a sus organismos autónomos en plaza igual o equivalente a la convocada (grupo C, subgrupo C2): máximo de 60 puntos a razón de 0,60 puntos por mes.

d) Servicios prestados en otras administraciones públicas en plaza igual o equivalente a la convocada (grupo C, subgrupo C2): máximo de 60 puntos a razón de 0,30 puntos por mes.

<p>c) eta d) ataletan lortutako puntuazioen baturak ezin izango du 60 puntu baino gehiago izan.</p> <p>B) PRESTAKUNTZA, HAUTAKETA-PROZESUAK GAINDITZEA, LAN-POLTSETAN EGOTEA ETA GIDA BAIMENAK.</p>	<p>La puntuación máxima por la suma de las puntuaciones obtenidas en los apartados c) y d) no podrá superar los 60 puntos.</p> <p>B) FORMACIÓN, SUPERACIÓN DE PROCESOS SELECTIVOS, PERTENENCIA A BOLSAS DE TRABAJO Y PERMISOS DE CONDUCIR.</p>
<p>B) atal honetan gehienez 20 puntu lortu ahal izango dira.</p>	<p>En este apartado B) se podrá obtener una puntuación máxima de 20 puntos.</p>
<p>B. 1) Titulazio akademiko ofiziala.</p> <p>Atal honetan gehienez 10 puntu lortu ahal izango dira.</p>	<p>B. 1) Titulación académica oficial.</p> <p>En este subapartado se podrá obtener una puntuación máxima de 10 puntos.</p>
<p>10 punturekin baloratuko da lortu nahi den plazarako eskatzen den maila bereko edo handiagoko titulazio akademiko ofiziala izatea. Maila berekoa bada, eskakizun gisa egiaztatutakoaz bestelako titulazioa izan beharko du; izan ere, ez da meritu gisa kontuan hartuko betekizuna egiaztatzeko kontuan hartzen den titulua.</p>	<p>Se valorará con 10 puntos estar en posesión de una titulación académica oficial de nivel igual o superior a la exigida para acceder a la plaza a la que se opta. Si es del mismo nivel deberá ser una titulación distinta de la acreditada como requisito, dado que no se tendrá en cuenta como mérito el título que se considere a efectos de acreditación del requisito.</p>
<p>B. 2) Hautaketa-prozesuak gainditzea.</p>	<p>B. 2) Superación de procesos selectivos.</p>
<p>Atal honetan gehienez 20 puntu lortu ahal izango dira.</p>	<p>En este subapartado se podrá obtener una puntuación máxima de 20 puntos.</p>
<p>- Donostiako Udalean eta haren erakunde autonomoetan harreragile laguntzaile plazaren batean karrerako funtzionario izateko egindako deialdiren bateko oposizio faseko ariketa baztertzailerak guztiak gainditzeagatik: 20 puntu.</p>	<p>-Por haber superado todos los ejercicios eliminatorios de la fase de oposición de una convocatoria de acceso a la condición de personal funcionario de carrera del Ayuntamiento de San Sebastián y sus organismos autónomos para cubrir plazas de auxiliar de recepción: 20 puntos.</p>
<p>- Donostiako Udalak eta haren erakunde autonomoek harreragile laguntzaile plazetan aldi baterako beharrak (lan-polttsak) betetzeko deitutako hautaketa-prozesu publikoetako eta lehia askeko hautaketa-prozesu baztertzailerak guztiak gainditzeagatik: 10 puntu.</p>	<p>-Por haber superado todos los ejercicios eliminatorios de procesos selectivos públicos y de libre concurrencia convocados por el Ayuntamiento de San Sebastián y sus organismos autónomos para cubrir necesidades temporales (bolsas de trabajo) en plazas de auxiliar de recepción: 10 puntos.</p>
<p>- Donostiako Udala eta haren erakunde autonomoak ez beste administrazio publiko batean harreragile laguntzaile plazak behin betiko edo behin-behinean betetzeko deitutako hautaketa-prozesu publikoetako eta lehia askeko hautaketa-prozesu baztertzailerak guztiak gainditzeagatik: 5 puntu.</p>	<p>-Por haber superado en una administración pública diferente del Ayuntamiento de San Sebastián y de sus organismos autónomos todos los ejercicios eliminatorios de procesos selectivos públicos y de libre concurrencia para cubrir definitiva o temporalmente plazas de auxiliar de recepción: 5 puntos.</p>
<p>Atal horietan lortutako puntuazioen baturak ezin izango du 20 puntu baino gehiago izan.</p>	<p>Por la suma de las puntuaciones obtenidas en los apartados anteriores no se podrán superar los 20 puntos.</p>
<p>B. 3) Donostiako Udalaren lan-poltsetan egotea.</p>	<p>B. 3) Pertenencia a bolsas de trabajo del Ayuntamiento de San Sebastián.</p>
<p>Atal honetan gehienez 10 puntu lortu ahal izango dira.</p>	<p>En este subapartado se podrá obtener una puntuación máxima de 10 puntos.</p>
<p>Donostiako Udaleko harreragile laguntzaile lan-poltsetan izateagatik: 10 puntu.</p>	<p>Por formar parte de las bolsas de trabajo de auxiliar de recepción del Ayuntamiento de San Sebastián: 10 puntos.</p>

B. 4) Hizkuntzak. Frantsesa eta alemana.

Azpiatal honetan, frantsesa eta/edo alemana jakiteagatik 10 puntu emango dira gehienez.

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailen arabera, puntuazio hau emango da:

- B2 maila: 10 puntu.
- B1 maila: 5 puntu.

Hizkuntza bakoitzerako, egiaztatzen den mailarik altuena bakarrik baloratuko da.

B. 4) Idiomas. Francés y Alemán.

En este subapartado se valorará, hasta un máximo de 10 puntos, el conocimiento de francés y/o alemán.

En función de los niveles del Marco Común Europeo de Referencia para las Lenguas se otorgará la siguiente puntuación:

- Nivel B2: 10 puntos.
- Nivel B1: 5 puntos.

Para cada idioma se valorará únicamente el nivel superior que se acredite.

B. 5) Informatikako ezagutzak.

Azpiatal honetan, IT Txartelaren ziurtagien sistemen bidez egiaztatutako informatika-ezagutzak baloratuko dira, eta gehienez 10 puntu lor daitezke.

Honako ziurtagiri hauek baloratuko dira

- Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 edo geroagokoa.
- Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 edo geroagokoa.
- Internet.
- Microsoft Access 2000/XP/2003 edo geroagokoa.
- Microsoft Outlook XP/2003/2010 edo geroagokoa.
- Microsoft Power Point 2000/XP/2003/2007/2010 edo geroagokoa.

B. 5) Conocimientos informáticos.

En este subapartado se valorarán los conocimientos informáticos acreditados mediante el sistema de certificaciones IT Txartela, pudiendo obtener un máximo de 10 puntos.

Serán objeto de valoración las siguientes certificaciones:

- Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 o posterior.
- Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 o posterior.
- Internet.
- Microsoft Access 2000/XP/2003 o posterior.
- Microsoft Outlook XP/2003/2010 o posterior.
- Microsoft Power Point 2000/XP/2003/2007/2010 o posterior.

Ziurtagiri horiek baremo honen arabera baloratuko dira:

- Oinarrizko mailako ziurtagiri bakoitzeko: 2,5 puntu.
- Maila aurreratuko ziurtagiri bakoitzeko: 5 puntu.
- Maila bakarreko ziurtagiri bakoitzeko: 5 puntu.

Estas certificaciones se valorarán de conformidad con el siguiente baremo:

- Por cada certificación de nivel básico: 2,5 puntos.
- Por cada certificación de nivel avanzado: 5 puntos.
- Por cada certificación de nivel único: 5 puntos.

Modulu bereko oinarrizko maila eta maila aurreratua egiaztatuz gero, aurreratua besterik ez da baloratuko.

En caso de que se acredite el nivel básico y el nivel avanzado del mismo módulo, sólo se valorará el avanzado.

Aplikazio baten bertsio berrienak baliorik gabe utziko ditu, balorazio aldetik, hura baino zaharragoko guztiak; baldin eta izangaiak lehenagoko bertsio hartan maila aurreratua lortu ez badu behintzat, maila aurreratua baloratuko da orduan eta.

Las certificaciones de una aplicación de versión posterior anularán las versiones anteriores, salvo que en la anterior versión la persona aspirante haya obtenido el nivel avanzado, en cuyo caso, se valorará este último.

B. 6) Gidabaimenak.

Azpiatal honetan adierazitako gidabaimenen titularra izatea baloratuko da, betiere indarrean badaude, eta gehienez 5 puntu lor daitezke:

- B klaseko gidabaimena: 5 puntu.
- A1 edo A2 klaseko gidabaimena: 2,5 puntu.

B. 6) Permisos de conducir.

En este subapartado se valorará ser titular de permisos de conducir que se indican, siempre que estén en vigor, pudiendo obtener un máximo de 5 puntos:

- Permiso de conducir de clase B: 5 puntos.
- Permiso de conducir clase A1 o A2: 2,5 puntos.

4. Emakumeei lehentasunezko klausula aplikatzea.

4. Aplicabilidad de la cláusula de prioridad a las mujeres.

Azken kalifikazioan berdinketa izanez gero, ez da emakumeei lehentasuna emateko klausularik aplikatuko.

En caso de empate en la calificación final, no será de aplicación la cláusula de prioridad a las mujeres.

ERANSKINA IV
ESKOLA ERAIKINAREN ARDURADUNA

ANEXO IV 1.
ENCARGADO/A DE EDIFICIO ESCOLAR

1. Deitutako plazak.

1. Plazas convocadas.

Eskola eraikinaren arduradun hambost (15) plaza betetzeko deialdia egiten da. Plaza horiek C taldekoak, C2 azpitaldekoak, administrazio bereziko eskalakoak, zerbitzu berezietako azpieskalakoak eta eginkizun bereziko klasekoak dira.

Se convocan quince (15) plazas de encargado/a de edificio escolar, perteneciente al grupo C, subgrupo C2, escala de administración especial, subescala servicios especiales, clase cometidos especiales.

2. Betekizun espezifikokoak.

2. Requisitos específicos.

Izangaiek betekizun espezifikoa hauek bete behar dituzte:

Las personas aspirantes deberán reunir los siguientes requisitos específicos:

2.1 Titulazioa.

2.1 Titulación.

Deialdiko plaza bakoitzerako plazen taulan adierazitako titulu akademikoa edo baliokidetzat jotako titulua izatea, edo hura lortzeko moduan izatea eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunerako.

Estar en posesión del título académico o título declarado equivalente señalado en el cuadro de plazas para cada una de las plazas objeto de la convocatoria, o en condiciones de obtenerlo en la fecha en que termine el plazo de presentación de solicitudes.

2.2 Euskara.

2.2 Euskera.

Deitutako plazak 2. hizkuntza-eskakizuna (Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko B2 maila) duen lanpostu bati lotuta daude, derrigortasun-data hauekin:

Las plazas convocadas están asociadas a un puesto de trabajo con perfil lingüístico 2 (nivel B2 del Marco Común Europeo de Referencia para las Lenguas), con las siguientes fechas de preceptividad:

-12 dotazio, derrigortasun-data igarota dutenak.

-12 dotaciones con fecha de preceptividad vencida.

-3 dotazio, 2022-12-31ko derrigortasun-datarekin.

-3 dotaciones con fecha de preceptividad 31-12-2022.

2.3 Sexu Delitugileen Erregistro Zentralaren ziurtagiri negatiboa.

2.3 Certificación negativa del Registro Central de Delincuentes Sexuales.

Epai irmo baten bidez kondenarik jaso ez izana sexu-askatasunaren eta sexu-ukigabetasunaren aurkako delituren bategatik (sexu-erasoa eta -abusua, sexu-jazarpa, exhibizionismoa eta sexu-probokazioa, prostituzioa eta sexu-esplotazioa, adingabeak galbidean jartzea eta gizakien salerosketa).

No haber sido condenado por sentencia firme por algún delito contra la libertad e indemnidad sexual, que incluye la agresión y abuso sexual, acoso sexual, exhibicionismo y provocación sexual, prostitución y explotación sexual y corrupción de menores, así como por trata de seres humanos.

3. Lehiaketako merezimenduen balorazioa.

3. Valoración de los méritos del concurso.

Gehienez ere 100 puntu lortu ahal izango dira, honela banatuta:

Se podrá obtener una puntuación máxima de 100 puntos, con la siguiente distribución:

- Lan-esperientzia: gehienez, 80 puntu.

- Experiencia profesional: máximo de 80 puntos.